# PR-Gi 156

## SALLOBENTEKO SEKRETUAK






Mediante este cómodo paseo le invitamos a descubrir numerosos secretos que esconden dos de los barrios de Elgoibar que mejor han sabido mantener su carácter rural, a pesar de estar situados en una villa netamente industrial: el barrio de Sallobente o Ermuaran y el barrio de San Roke.

1 Desde el centro urbano nos dirigiremos hacia el barrio de San Roke, en la ladera del monte Karakate. Nos acercaremos a la ermita del mismo nombre, que cuenta con elementos góticos, como la portada de acceso, abierta en arco apuntado. Prosiguiendo el camino, pasaremos junto a caseríos de interés histórico, tales como Goenaga, Bekoetxe, Sansongua (edificios de los siglos XVII-XVIII) y Beraseta, datado en el siglo XVI.



2 Tras alcanzar un poco de altura, nos adentraremos en un paraje boscoso, que nos ofrecerá preciosas panorámicas del barrio de Sallobente. En la parte alta de la ladera, en el cordal de Karakate, existen numerosos monumentos megalíticos prehistóricos. La gran proliferación en este entorno de dólmenes y túmulos, monumentos funerarios ligados a la cultura pastoril de remotos tiempos, motivó el que D. José Miguel de Barandiaran la bautizase con el nombre de "Ruta de los dólmenes". La vegetación de la zona se compone de hayas, robles, castaños y pinos insignis, importados de California.




3 Una vez sobrepasado el caserío Zulueta Goiti, nos toca bajar hasta la ermita de San Lorenzo por un precioso camino que, en algunos tramos, guarda restos de la antigua calzada. También caminaremos por un estrecho "elizbide", que todavía algunos vecinos de la zona lo usan los domingos para ir a misa.

4 El pequeño núcleo de Sallobente posee una ermita con la imagen del santo oscense, a la que se acude en rogativas en épocas de sequía. Los alrededores de la ermita, habilitados con mesas y juegos infantiles, constituyen un paraje idóneo para el disfrute de un día de campo.

La construcción es sencilla y de estilo tradicional. Con motivo de unas obras se descubrieron recientemente restos de pinturas murales, algunas de ellas posiblemente del siglo XV.



5 En el ecuador del itinerario se puede elegir entre dirigirse al centro urbano por la carretera asfaltada o proseguir la ruta balizada, subir hasta el antiguo camino del puerto de Azkarate e ir luego bajando hasta el caserío Olazabal. Pasaremos luego por Upaitza Goikoa, saliendo al cruce de carretera que entra a San Lorenzo, para llegar desde este punto a Ibarre Torre.

6 Desde aquí sólo nos queda visitar el Museo de Máquina Herramienta de la villa, para descubrir los secretos del pasado industrial que esconde el valle del Deba.

## MESAS INTERPRETATIVAS

En este itinerario hemos querido destacar algunos de los secretos que han protagonizado la evolución vivida por Elgoibar. Para ello hemos colocado en el mismo cuatro mesas interpretativas.



La **primera mesa** reproduce un grabado del siglo XVIII, realizado en 1757 por José de Zameza, bajo la dirección del maestro grabador flamenco **Florencio Joseph de Lamot**. Muestra la importancia que tenía en el siglo XVIII la producción armera en el Bajo Deba.



La **segunda** nos descubre algunos secretos de uno de los deportes populares más antiguos que todavía se practica en la zona: las **idi-demak** o **pruebas de bueyes**.



La **tercera** nos desvela las **pinturas murales** encontradas tras el retablo de la ermita de Sallobente.



La **cuarta** dibuja los **trazados de los caminos** que a lo largo de la historia han unido el pueblo de Elgoibar con Azkoitia por el alto de Azkarate.

PR-Gi 156
SALLOBENTEKO SEKRETUAK





Proposatzen dizugun ibilaldi eroso honekin Elgoibarko beste txoko batzuetako sekretuak ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Herri zeharo industrialean egon arren, baserri-giroari eutsi dioten bi auzo bisitatuko ditugu: Sallobente edo Ermuaran eta San Roke.

❶ Hasteko, Elgoibarko kaletik San Roke auzorantz joko dugu, Karakate mendiaren maldara. Izen bereko ermitara hurreratu eta bere elementu gotikoak ikus ditzakegu: arku zorrotza duen sarrerako atea, esate baterako. Eta bideari jarraituz, interes historikoa duten baserrien ondotik pasatuko gara: Basueta, Goenaga, Bekoetxe, Sansongua, XVII-XVIII. mendeetako eraikinak, eta Beraseta, XVI.ekoa.



❷ Apur bat igo ondoren, baso-gune batean sartu eta Sallobente auzoaren ikuspegi ederra azalduko zaigu begien aurrean. Mendi-hegalaren goiko aldean, Karakate mendilerroan, historia aurreko monumentu megalitiko asko aurkitzen dira. Paraje hauetan trikuharri eta tumulu ugari daude, artzain-kultura zaharreko hilobiak. Horregatik bataiatu zuen Jose Migel Barandiaranek inguru hau "Trikuharrien ibilbidea" izenarekin. Landaredia, berriz, pago, haritz, gaztaina eta Kalifornietik ekarritako insignis pinuek osatzen dute.




❸ Zulueta Goiti baserria gainditu eta gero, zati batzuetan galtzada zaharraren aztarnak gordetzen dituen bide eder batetik San Lorentzo ermitaraino jaitsi beharra dago. Elizbide estu bat ere erabiliko dugu, oraindik ere auzotar batzuek mezetara joateko igandero egiten duten bezalaxe.

❹ Sallobenteko gunetxoan baseliza handi samarra dago Hueskako martiriaren irudiarekin. Lehorteetan euri eske hurbiltzen ziren santu honengana, errogatibak eginez. Ingurumarietan mahaiak eta umeentzako jolaslekuak jarrita daudenez, jende asko etortzen da hona egun-pasa. Ermitak egitura xume eta tradizionala dauka. Obra batzuk egiten ari zirela, horma-pinturak aurkitu zituzten, hauetako batzuk XV. mendekoak seguruenik.



❺ Ibilbidearen erdia den puntu honetan bi aukeren artean hauta daiteke: hirigunera zuzen jo asfaltozko errepidetik; edota markatutako bidetik jarraitu, eta Azkaretarako gurdibide zaharreraino igo ondoren, Olazabal baserriraino jaitsi, Upaitza Goikoitik pasatu eta San Lorentzora sartzen den errepidearen bidegurutzera irten, handik Ibarre Torrera iristeko.

❻ Herrira itzuli aurretik, Elgoibarko makina-erremintaren museoa bisita dezakegu, Debarroan zegoen industriaren garrantzia zenbaterainokoa zen jakin gura badugu.

## INTERPRETAZIO-MAHAIAK

Ibilbide honetan Elgoibarrek bere bilakaeran gorde dituen elementu ezkutu edo ez hain ezagun batzuk nabarmendu nahi izan ditugu. Hartarako, lau interpretazio-mahai jarri dira berton.



**Lehenengo maila** XVIII. mendeko grabatu bat dakar, 1757an Jose Zamezak egina, **Florenz Joseph Lamot** grabatzaile flandestarraren zuzendaritzapean. Debabarrenako armagintzak XVIII. mendean zuen garrantzia erakusten digu.



**Bigarrenak** inguru hauetan oraindik jokatzen den herri-kirolik zaharrenetako baten alderdi ezkutu batzuk azaltzen dizkigu: **idi-dema** edo idi-probenak, alegia.



**Hirugarrenak** Sallobente ermitako erretaularen atzean aurkitu ziren **horma-pinturen** berri ematen digu.



**Laugarrenean** Elgoibar eta Azkoitia artean Azkarateko mendatetik zehar izan diren **ibilbideen trazatuak** marraztu dira.

Tel.: 946 840 145

